# Zerbitzu–Karta

# Gazteriaren Foru Erakundea (Araba)

**Sarrera**

Zerbitzu eskaintza honen bidez, Gazteriaren Foru Erakundeak kudeatzen dituen zerbitzuen ezaugarrien berri eman nahi dugu, eta zerbitzu horiek kalitate handiz emateko konpromisoa hartu. Ekimen horiekin eta zure lankidetzarekin, foru zerbitzu publikoak zerbitzu horiek erabiltzen dituztenen premiak asetzera bideratu nahi ditugu, eta zerbitzu horiek hobetzen jarraitu.

Ana Rosa López de Uralde. Zuzendari kudeatzailea

**Eginkizuna**

Arabako haurrei eta gazteei garapen pertsonalean eta sozialean laguntzea helburu duen foru erakundea gara.

Horretarako, politikak definitzen eta ezartzen ditugu, eta beren interes eta beharrei erantzuteko laguntzak eta zerbitzuak garatzen ditugu.

**Jarduera ardatzak**

Gazteriaren Foru Erakundea arduratzen da Arabako gazteei zuzendutako jarduerak, programak eta ekintzak zeharkako ardatz batzuekin bat etorrarazteaz. Ardatz horiek honako hauekin dute zerikusia:

-Euskararen erabilera eta ezagutza

-Ingurumena errespetatzea

-Genero berdintasuna

Aurrekoaz gain, Erakundeak, bere zerbitzuen, programen eta jardueren bitartez, bizikidetzarekin, berdintasunarekin, elkartasunarekin eta beste kultura batzuekiko errespetuarekin lotutako balioak transmititzeko lan pedagogikoa egiten du, uste osoa izanik balio horiek positiboak direla gure haurren eta gazteen garapen pertsonal eta sozialerako.

gaztea
Gazteriaren Foru Erakundea
Instituto Foral de la Juventud
araba álava

| Zer eskaintzen ditugu? | Konpromisoak* | Adierazleak |
| --- | --- | --- |
| **Udalekuak** (4 - 13) | Adin guztietarako (7-17 urte) aisialdirako eta denbora librerako **jarduera bat** eskaintzea udan haur eta gazteei, haien interesak eta beharrak kontuan hartuta. | Adin tarteka eskaintzen diren jardueren kopurua. |
| **Gazte Bidaiak** | Izena emateko eta plazak esleitzeko prozesu telematiko azkarra eskaintzea, telefono bidezko laguntzarekin. | Erabiltzaileen gogobetetasun maila: 10etik 8. |
| **Hezkuntza kanpaina** | Lurraldeko **Bigarren Hezkuntzako 10 ikastetxeri gutxienez bisitak** eskaintzea, Derrigorrezko Hezkuntza edo Batxilergoa amaitzen dutenean beren prestakuntzarekin jarraitzeko dituzten aukerei buruzko informazio eguneratuarekin, **gutxienez 500 ikasle kontuan hartuta**.<br><br>Informazio pertsonalizatua ematea tokian bertan, WhatsApp bidez, posta elektronikoz eta telefonoz, hala eskatzen digutenean. **Informazioa lau egun baliodunеko epean bidaltzeko** konpromisoarekin. | Bisitatutako zentroen / ikasleen kopurua % 80ko gogobetetasuna lortzea zentroari egindako inkestan.<br><br>Adierazitako epean bidalitako informazioaren ehunekoa. |
| **Dirulaguntzak** (14 - 17) | Gazteentzako dirulaguntzen **deialdi** publikoa egitea. | Deialdi kopurua. |
| **Infogaztea** (18 - 29) | Arabako gazteei informazio eguneratua eskaintzea, informazio premiak betetzen laguntzeko. Horretarako, **gutxienez hilean 6 buletin** argitaratuko dira, lanari, lehiaketei, ikastaroei, eta bekei eta aisialdiari buruzko informazioarekin. | Bidalitako buletinen kopurua. |

**Gazte-elkarteak**

| | | |
| --- | --- | --- |
| **Dirulaguntzak** | Elkarteentzako dirulaguntzen **deialdi** publikoa egitea. | Deialdi kopurua. |
| **Mailegu materiala** | Material egokia izatea, egoera onean, konponduta eta urtero berrikusita, halakorik eskatzen duten gazte elkarteei eskaintzeko, material maileguen eskariaren % 100ari erantzunez. | Materiala mailegatzeko erantzundako eskabideen kopurua.<br><br>Gazteen elkarteei egindako balorazio inkesta, % 80ko gogobetetzea lortuz. |
| **Aholkatzea** | Gazte elkarteei aholku ematea, gazteriaren eragile sustatzaile gisa egiten duten lanean, **urtero gutxienez** elkarte horiekin guztiekin **harremanetan** egoteko konpromisoarekin. | Elkarteekin egindako bileren, kontaktuen eta abarren kopurua. |

| | Zer eskaintzen ditugu? | Konpromisoak* | Adierazleak |
|---|---|---|---|
| Ikastetxeak | **Aisialdiko hezkuntza programak**<br>*Arabaz Blai / Aulak (euskara) (6-14 urte)<br>*This is not an english class (ingelesa) (10 -12 urte)<br>*Eco School (Ingelesa eta ekologia ) (12-14 urte)<br>*Arnastu (natura) (7-11 urte)<br>* Hitz Kolepz (Genero indarkeriaren aurkako sentsibilizazioa ) (14-18 urte) | Ikasturtean zehar, hezkuntza curriculumaren osagarri izango den hezkuntza aisialdiko jarduera **bat** eskaintzea, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako adin desberdinetara egokituta. | Hezkuntza etapa eta ziklo bakoitzeko eskainitako jardueren kopurua<br>Erabiltzaileen gogobetetasun maila: 10etik 8. |
| Toki-erakundeak | **Gazteekin egiten diren proiektuetarako dirulaguntzak** | Gazteekin egiten diren proiektuetarako dirulaguntzen **deialdi** publikoa egitea. | Deialdi kopurua. |
| Toki-erakundeak | **Informazio-buletinak** | Gutxienez **hilean 5 buletin** bidaltzea aisialdiari, lanari, prestakuntzari, lehiaketei eta bekei buruzko informazioarekin. | Bidalitako buletinen kopurua. |
| Herritar guztiak | **Aterpetxeak** | Ostatu garbia, espazio seguruak eta ondo mantenduak eta beharren araberako dieta bereziak eskaintzen dituen zerbitzua bermatzea. Ikus JFEko Aterpetxeen Zerbitzuen Karta. | Inkesten balorazioa >= 4 (1-5). |
| Herritar guztiak | **Gazteentzako aterpetxeak eta informazio bulegoak onartzea** | Aisialdiko eskolen, gazte aterpetxeen eta gazteentzako informazio bulegoen aintzatespenak kudeatzea, **eskaeren % 100 hiru hilabeteko epean ebazteko konpromisoarekin.** | Epearen barruan ebatzitako eskaeren ehunekoa. |
| Herritar guztiak | **Erreklamazioak** | Kexak, erreklamazioak eta iradokizunak **48 ordu balioduneko epean erregistratzea eta gehienez hilabeteko epean** erantzutea. | Adierazitako epean ebatzitako kexa, erreklamazio eta iradokizunen ehunekoa. |

# Araudia

Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 8ko 26/2010 Foru Dekretua; horren bitartez aldatu zen Gazteriaren Foru Erakundearen organismo autonomoaren egitura eta funtzionamendua. (ALHAO, 67zk., 2010eko ekainaren 18a)

211/1993 Dekretua, uztailaren 20koa, gazteentzako informazio zerbitzuen onespena arautzen duena (EHAA, 170 zk.n 1993ko irailak 7)

Gazteriaren Foru Erakundeak garatutako programen kudeaketaren araudia (ALHAO, 33zk., 2019ko martxoaren 18a).

Ikusi araudi gehiago

# Herritarren eskubideak eta betebeharrak

**Eskubideak:**

* Eskainitako zerbitzu eta programetan parte hartzea (erabiltzea) aukera berdintasunean.

* Datu pertsonalak eta ematen den informazioa isilpean gordeko direla bermatzea, bai eta datu horiek eskuratu, zuzendu, ezeztatu eta horien aurka egingo dela ere.

* Informazio plurala eta objektiboa jasotzea. Kontsulta pertsonalizatuak egitea.

* Edozein iradokizun, erreklamazio edo kexa egitea eta ezarritako epean erantzuna. jasotzea.

* Eskaerak, idazkiak eta komunikazioak aurkeztu izanaren egiaztagiria lortzea.

* Zerbitzuen araudi erregulatzailerako sarbidea izatea.

**Betebeharrak:**

* Zerbitzu bakoitza erabiltzeko baldintza orokorretan zehaztutako arauak eta eskakizunak betetzea.

* Langileekiko jarrera egokia eta errespetuzkoa izatea beti, eta Zerbitzuko profesionalekin lankidetzan aritzea.

* Zerbitzua erabiltzeko behar den egiazko informazioa ematea, argi eta zehatz .

# Nola lagun diezaguzun

Herritarrek honako modu hauetan aurkeztu ahal izango dituzte edozein zerbitzuren funtzionamenduari buruzko kexak eta iradokizunak:

**Aurrez aurre,** Gazteriaren Foru Erakundean (Jose Joaquín Landazuri kalea 3, 01008 Gasteiz, Araba).

**Bitarteko elektronikoen bidez**: posta elektronikoz ifj@araba.eus edo gure web

# Informazioa

**Bulego nagusiak**

Joaquín José Landázuri, 3

01008. Vitoria-Gasteiz (Araba)

945181988 ifj@araba.eus

**Aterpetxeak.** Erreserbak egiteko telefonoa : 945 181988 / Web

| | Telefonoa | E-maila | |
|---|---|---|---|
| **Barriako aterpetxea** | 945317132 | barria@araba.eus | Google maps |
| **Espejoko aperpetxea** | 945351150 | espejo@araba.eus | Google maps |
| **Zuhatzako aperpetxea** | 945299914 | zuhatza@araba.eus | Google maps |

# * Konpromisoak betetzea

Zerbitzu eskaintza honetako konpromisoen betetze maila zein den jakiteko, urteko emaitzak kontsulta daitezke honako honetan: Web orrian (memoriak)

2022/04/25

gaztea Gazteriaren Foru Erakundea Instituto Foral de la Juventud araba álava